

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3431

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetz-erakundeei laguntzak emateko dena, 2014. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko.

Azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuak (EHAA, 235. zk., 2008ko abenduaren 9koa) lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2014ko apirilaren 29ko ebazpenaren bidez (EHAA, 81. zk., 2014-05-02koa), lankidetz-entitateei laguntzak emateko deialdia egin zen, 2014. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatze aldera.

Aipatutako 197/2008 Dekretuaren 15. artikuluekin bat etorriz –Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluekin lotuta (EHAA, 131. zk., 2008-07-10ekoa)– eta martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren bidez onartutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 11.1 artikuluekin bat etorriz (EHAA, 65. zk., 2010-04-09koa), balorazio- eta instrukzio-prozesua amaitu ostean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektoreak 2014ko uztailaren 22an egindako bilkuran egindako proposamenez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2014ko apirilaren 29ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ematea ebazpen honetako I. eranskinean jasotako erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean jasota dauden eskabideak baztertzea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtoa jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 23a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2014ko uztailaren 31, osteguna

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK - GBA-2014

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Helburua	Emandako diru-laguntza
GBA-2014BA/0001	Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	26.400,00
GBA-2014BA/0003	Fundación Promoción Claretiana de Desarrollo. Yanapay - Proclade Yanapay	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	26.000,00
GBA-2014BA/0004	Asociación CEAR-Euskadi (Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin)	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	26.394,83
GBA-2014BA/0005	Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	26.400,00
GBA-2014BA/0007	Bizilur, Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	26.400,00

II. ERANSKINA

BAZTERTU DIREN ESKABIDEAK GBA-2014

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Helburua	Ukatzeko arrazoiak
GBA-2014BA/0002	Asociación REAS Euskadi - Red de Economía alternativa y Solidaria / Economía Alternatibo eta Solidarioaren Sarea	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	Proiektua baztertu da ez delako ordezkaritza betekizuna betetzen (30/1992 Legeko 32. artikulua), eta ez delako 197/2008 Dekretuko 2.1) artikuluko betekizuna betetzen.
GBA-2014BA/0006	Garabide Kultur Elkartea	Generoaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.	Proiektua baztertu da ez delako 197/2008 Dekretuko 14. artikuluko betekizuna betetzen.